

ZAKURREN GAINEKO ORDENANTZA

2002.eko otsailaren 27ko 25. NAOn argitaratua

Zakurren Zentsua gero eta handiagoa dela eta ohartamangarria da herri guztian barrena ibiltzen direla nolana. Horrek gorotzak ugaritzea dakar parke, plaza eta espaloietan. Halaber, herritarren kexak jaso ditugu, ustezko erasoak medio haur franko beldurtzen direla eta.

Gaia aztertu eta eztabaidaturik, Batzorde honek ordenantza bat sortzea erabaki du, geroago osoko bilkuran onets dadin.

Zakurren gaineko ordenantza.

1. Zakur guztiek txertaturik eta txip baten bidez identifikaturik egon behar dute. Puntu hau ez betetzeak 105,50 euroko zehapen ekonomikoa ekarriko du.
2. Hirigunean, zakur guztiek uhalez loturik joan behar dute. Uhala luzagarria izaten ahal da animalia arriskutsutzat jo ez bada. Halakoetan, animaliak muturreko bat eraman behar du jarririk, eta uhala metro bat luze izanen da gehienez. Puntu hau ez betetzeak 105,50 euroko zehapen ekonomikoa ekarriko du.
3. Zakurra bere eginbeharrez konplitzen bada eremu publikoan, plazetan edo espaloietan, animalia paseatzen ari denak du berehala garbitzeko ardura. Puntu hau ez betetzeak 105,50ko zehapen ekonomikoa ekarriko du.
4. Erabat debekaturik dago zakurrak ikastetxe, parke publiko eta eraikin publikoetara sartzea. Puntu hau ez betetzeak 105,50 euroko zehapen ekonomikoa ekarriko du.
5. Halako batean aske eta arduradunik gabe harrapatzen diren zakurrak lokal egoki batera bilduko dira, eta han hiru egunez gordeko. Denbora hori iraganik, jabea agertzen ez bada, Animaliak Babesteko Elkartearen esku utziko dira. Puntu honek dakarren zehapen ekonomikoa egindako arau-hausteen zenbatekoaren batura adina izanen da.
6. Azkenik, erantzukizun zibileko aseguruia kontratatzeke gomendioa egitea zakurren jabeai, zakurrak hirugarrenei egiten ahal dizkien kalteak estaltzearen.